



MendiAmore

Mendia bizi

Kanalak

Bezeroengana hurbiltzeko gure enpresak honako kanal mota hauen arabera lan egingo du. Gure proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresak hainbat modutan komunikatuko da. Bi kanal mota nagusituko direlarik: Komunikazio-kanalak eta salmenta-kanalak.

Gure kanal propioei dagokionez, denda fisikoa izango litzateke guztietatik kanal garrantzitsuetarikoak, hots, informazio zentroa, Gasteizen kokatuko litzatekeena. Horrela, hiriko familiak gure bezero potentzialak izanik, lokala hurbil edukiko lukete bidaia prestatzeko eta informazioa eskuratzeko. Internet baliabideak erabiliz, webgune propioa sortuko dugu, gure eskaera bezero gehiagoei heldu ahal izateko, sare sozialak ere erabiliko genituzke. Era berean, ustapena ahalbidetzeko gure tarifen eta zerbitzuen berri emago duten liburuxkak banatuko dira Mendialdeko enpresa, denda edo edozen establezimendutan. Hauek guztiak, komunikazio-kanalak osatuz.

Salmenta-kanalei dagokionez, aurretik aipaturiko denda fisikoan, kontratazioa bideratzeko aukera ere egongo da, ordainketa prozesu guztiak bertan bideratuz. Horrez gain, web gunearen bidez, nahi den bidaia kontratatzea ere, posiblea izango da.

Kanal propioak lehen aipatutako denda eta webgunea izango lirateke. Aldiz kanal elkartuak beste denda batzuetan egongo diren liburuxkak gure enpresa eta zerbitzuak publizitatuz eta bezeroak erakarriz.